

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Mantentze lanetarako peoia hautatzeko oinarriak

Alkate-Udalburuak, 2021eko maiatzaren 27ko 297 erabakiaren bidez, honako hau onartu zuen:

LEHENA. Deialdiaren xede den lanpostu hutsaren ordainketari dagokion gastua onartzea.

Indarrean dauden Aurrekontu Orokorren I. kapituluaren kontsignazioa dago.

BIGARRENA. Zioen azalpenean adierazitako lanpostu hutsa jabetzan betetzeko hautaprobek oinarri arautzaileak onartzea (I. ERANSKINA).

HIRUGARRENA. Proben deialdia egitea, eta epaimahaiko kide izan behar duten erakundeei jakinaraztea, deialdi horretako hautaketa-organoko kide izateko kideak izenda ditzaten.

LAUGARRENA. Hautaprobek oinarri arautzaileen testu osoa argitaratzea Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Udalaren egoitza elektronikoa eta udaletxeko iragarki-taulan.

Deialdiaren laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

BOSGARRENA. Deialdiaren laburpen bat argitaratzea Estatuko Aldizkari Ofizialean, eta iragarki horren data izango da eskabideak aurkezteko epea zenbatzeko balioko duena.

Ozaetan, 2021eko maiatzaren 27an

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA

I. ERANSKINA

LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da, udal korporazioaren funtzionarioen aurrekontu plantillan hutsik dagoen eta 2020ko ekitaldirako onartutako enplegu publikoaren eskaintzan sartutako plaza bat jabetzan hornitzea, oposizio prozeduraren bidez. Edonola ere, deialdiko plazak 2020-11-05eko derrigortasun datadun 2. hizkuntza eskakizuna (2. HE) esleituta dauka eta, beraz, ezingo dute hura bete oinarri hauetan eta gehitutako eranskinetan ezarritako eran eskakizuna betetzen dutela egiaztatu ez duten hautagaiek.

Lanpostua: mantentze lanetarako peoia.

Eskala: administrazio berezia.

Azpieskala: zerbitzu berezietakoak.

Sailkapen taldea: C2 (D).

Titulazioa: derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduduna eta indarreko araudiak enplegu publikoan sartzeko ondorio berberak ematen dizkien tituluak.

Hautaketa sistema oposizio bidezko sarbide librea izango da.

Lanpostuaren ezaugarriak:

– Lanpostuen eginkizunak, egitekoak, rolak eta bestelako ezaugarriak eranskinetan zehaztuko dira, izangaien informaziorako eta hautaketa prozesua ebaluatzeko irizpideen oinarri gisa erabiltzeko.

– Lanaldia udalak urtero ezartzen duena izango da, betiere lanpostuaren izaera eta premia zehatzak kontuan harturik. Lanpostuaren arduraldi araubidea lanaldi osoa da, eta lanaldi zatitua, goizez eta arratsaldez, izan daiteke.

Lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzera joateko prestasuna, eskatzen zaionean. Prestasun horretaz gain, lanpostuari urtean gehienez 80 orduko dedikazioa eskatuko zaio, betiere ohiko lanalditik kanpo.

– Aipatutako plazak ez du ematen lana toki jakin batean egiteko eskubiderik.

BIGARRENA. IZANGAIEK BETE BEHARREKOAK.**1. Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko honakoa beharrezkoa izango da:**

– Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukaten estaturen bateko kide izatea. Halaber, Europar Batasuneko estatuetakoa herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta legez bananduta ez badaude, bai eta herritartasuna duenaren eta haren ezkontidearen ondorengoek ere —baldin eta horiek ere legez bereizita ez badaude—. Azken horiek hogeita bat (21) urte baino gutxiago izan beharko dute edo bestela adin hori baino nagusiagoak eta gurasoen kontura bizi.

– Hautagaiak hamasei urte beteta eduki behar ditu eta ezin du izan erretiroa hartzeko adina.

– Titulazioa: derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduduna eta indarreko araudiak enplegu publikoan sartzeko ondorio berberak ematen dizkien tituluak.

– Behar den besteko gaitasun funtzionala izatea atazak betetzeko.

– Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea herri administrazioen ez autonomia er-kidegoetako organo konstituzionalen edo estatutuen arabera organoen zerbitzutik, eta ez egotea epai bidez erabat edo bereziki desgaituta enplegu eta kargu publikoetan aritzeko ez funtzionario kidego edo eskalan sartzeko, ez eta, lan kontratudun langileen kasuan, baztertu edo desgaitutako lanpostuan egiten zituzten antzeko egitekoetan aritzeko ere. Batasuneko beste estatu batekoak diren izangaiak ezin dira egon desgaituta enplegu publikoan aritzeko (ez eta horren baliokide den egoera batean ere), eta ezin jaso izan dute beren estatuan enplegu ofiziala lortzea eragozten duen diziplinako zehapenik ez antzekorik.

– Administrazio publikoen zerbitzuko langileen ezgaitasun edo bateraezintasunen arloan, indarrean dagoen araudiak xedatutako ezgaitasun edo bateraezintasun inguruabarretako batean ere ez egotea.

– B2 gida-baimena.

2. Deialdian parte hartu nahi dutenek eskabideak aurkezteko epea amaitzen denerako eskatutako betekizun guztiak izan beharko dituzte (2. HE izan ezik, hirugarren azterketa baten bidez haren ezagutza egiaztatu ahal izango baitute), eta betekizun horiek hautaketa prozesuak dirauen bitartean mantendu beharko dituzte.

HIRUGARRENA. ESKABIDEAK ETA ONESPENAK.

Hautaketan parte hartzeko eskabideetan, izangaiak adierazi beharko dute deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela. Eskabideak Barrundiako Udaleko bulegoan (Boilar 12, Ozaeta) aurkeztuko dira, behar bezala beteta, hogeit hamar lan-eguneko epean,

ebazpen hau EEO (Estatuko Egunkari Ofiziala) n argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskabideak horretarako prestatutako ereduan egin beharko dira. Eredu hori eskura egongo da udal bulegoetan eta <http://www.barrundia.eus> web orrian (eskaera elektronikoa).

Era berean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera ere aurkeztu ahalko dira eskabideak.

Correoseko bulegoen bidez aurkezten diren eskaerek gutun azal irekian joan beharko dute, Correoseko langileek data eta zigilua jar ditzaten ziurtatu baino lehen.

Izangaiek emandako informazio guztia fitxategi batean jasoko da, zeina hautaketa prozesua kudeatzeko eta udalean bitarteko funtzionarioak izendatzeko sortuko diren lan poltsak kudeatzeko bakarrik erabiliko baita. Fitxategi honen erabilera eta funtzionamendua Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeak arautuko dute.

Eskabideetan hauek agertu beharko dira:

- Datu pertsonalak osorik.
- Oposizio aldiko ariketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi diren, euskaraz ala gaztelaniaz.
- Desgaitasunen bat duten pertsonak egoera hori jakinarazi beharko dute, eta hautaprobak egiteko behar dituzten egokitzapen teknikoak eskatuko dituzte, behar izatekotan.

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Nortasun agiri nazionalaren fotokopia.
- Dagokion plaza betetzeko behar den titulazioaren fotokopia.
- Hizkuntza egiaztatze proba egin aurretik, 2. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea daukela egiaztatze ziurtagiri edo tituluen kopia, lege xedapen hauetan jasotakoak: azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua, zeinak euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzen baititu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekin parekatzen baititu (EHAA 219, 2010-11-15), eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aitortzeari buruzkoa eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatze salbuesteari buruzkoa (EHAA 74, 2012-04-16).

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, alkate-lehendakariak deialdian onartu eta baztertu direnen behin-behineko zerrenda onetsiko du, baztertzeko arrazoiekin batera.

Ebazpen horretan bertan, halaber, epaimahai kalifikatzailea, nola titularrak hala ordezkioak, eratzten duten pertsonen izenak argitaratuko dira. Zerrenda horiek ALHAOn argitaratuko dira. Horrez gain, Barrundiako Udalaren iragarki taulan eta web orrian azalduko dira. Egokitzen diren alegazioak egiteko 10 egun balioduneko epea egongo da, iragarkia ALHAOn argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Zerrendan, baztertutako izangai bakoitzaren baztertzeko arrazoiak zehaztuko dira, eta 10 egun balioduneko epea izango dute bazterketaren aurkako erreklamazioak jarri eta hura eragiten duten akats edo agiriak zuzentzeko. Erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, izangaiek onartzea ala baztertzea erabaki zuenak ebatziko ditu aurkeztutako erreklamazioak. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da. Behin betiko zerrenda behin-behineko zerrendaren modu berean jakinaraziko da.

Ebazpena udalaren ediktu taulan eta web orrian (<http://www.barrundia.eus>) argitaratuko da.

LAUGARRENA. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

4.1. Epaimahaian lehendakari bat, idazkari bat eta bost epaimahaikide egongo dira.

Lehendakaria: Lautada Kuadrillako legelaria.

Ordezkoa: Gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionario bat.

Lehen epaimahaikidea: Lautada Kuadrillako arkitekto teknikoa.

Ordezkoa: administrazio publikoko funtzionario bat.

Bigarren epaimahaikidea: Lautada Kuadrillako arkitekto teknikoa.

Ordezkoa: administrazio publikoko funtzionario bat.

Hirugarren epaimahaikidea: HAEEK izendutako teknikari bat.

Ordezkoa: HAEEK izendutako teknikari bat.

Laugarren epaimahaikidea: Lautadako Kuadrillako enplegu- eta prestakuntza-teknikaria.

Ordezkoa: Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekako Sailak izendatutako teknikari bat.

Bosgarren epaimahaikidea (euskara proba): HAEEK izendatutako kide bat.

Ordezkoa: HAEEK izendatutako kide bat.

Idazkaria: udaleko idazkari nagusia edo hark eskuordetzen duena, hitza izango duena baina botorik ez.

Ordezkoa: Gaikuntza nazionala duen toki-administrazioko funtzionario bat.

Espezialitatea: epaimahaikide guztiek deialdian sartzeko eskatzen den maila bereko titulazioa edo handiagoa izango dute, eta epaimahaikideen erdiek gutxienez, berriz, ezagutza esparru bereko titulazioa.

Epaimahaiak bere lanetan aholkulari adituak barne hartu ahalko ditu, hautaketa prozesua osatzen duten proba guztietarako edo baten baterako. Adituok beren espezialitate tekniko gaizatzen mugarri mugatuko dira, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 31.4 artikuluan ezarritakoaren arabera. Aholkularitza eta ezagutza tekniko emango dute, eta hitza izango dute baina botorik ez.

Epaimahaikideek ez dute esku hartuko eta Udaleko alkateari jakinaraziko diote Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek epaimahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera aurreko artikuluan xedatutako gorabeheraren bat dagoenean.

Bestalde, epaimahaiak dagozkion ordezkioak izango ditu; epaimahaiko idazkariaren eta eskuordetu ezin diren epaimahaikide titularren eta ordezkioen izendapenak aldi berean egingo dira. Epaimahaia ezingo da eratu, eta hark ezingo du jardun, baldin eta gutxienez kideen (titular nahiz ordezko) erdia bertaratu ez badira.

Epaimahaikide guztiek hitza eta botoa izango dituzte, idazkariak izan ezik, azken horrek botorik izango ez baitu. Epaimahaiaren erabakiak bertan daudenen botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketarik badago, lehendakari diharduenaren botoak ebatziko du.

Kide anitzeko organoko titularra absente edo gaixorik badago, edo, oro har, bidezko arrazoirik bada, ordezkioa jarriko da haren tokian. Lehendakari izendatutako pertsonaren postua hutsik badago, hura falta bada, gaixorik badago edo legezko beste kausaren bat bada tartean, bere ordezkioa bertaratu da, eta, hura ere ez badago, epaimahaian kideen artetik hierarkia, antzinatea eta adin handiena duena, ordena horretan. Idazkaritzarako izendatutako pertsona behin-behinean ez badago, postua hutsik dagoelako, hura ez dagoelako edo gaixorik dagoelako, bere ordezkioak beteko du lekua, edo, halakorik ezean, epaimahaiak erabakitzen duenak.

4.2 Epaimahaiari baimena ematen zaio sortzen diren zalantzak konpondu eta hautaketa prozesua onez buru dadin behar diren erabaki guztiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez.

Epaimahaia osatzen duten titular eta ordezkoen zerrenda hautaketa prozesuan onartu eta baztertu diren izangaien behin-behineko zerrendarekin batera argitaratuko da, alkateak haiek hautatu eta gero.

Jakinarazpenak egin eta gainerako gorabeherak ebazteko, epaimahaiak Barrundiako Udalean edukiko du egoitza (Boilar 12, Ozaeta).

BOSGARRENA. HAUTAKETA PROZESUA HASI ETA BURUTZEA.

Eginkizunak eratu eta programatzea: lehenengo proba egin baino lehen epaimahaia bildu egingo da, kideen gehiengoa (titularrak edo ordezkoak) bertan izanik. Bilera horretan hartuko dira behar diren erabakiak hautaketa prozesua era objektiboan eta eraginkorrean programatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko.

5.1 Jardun prozedura:

Epaimahaiaren jardun prozedura une oro lotuko zaio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoari.

5.2. Epaimahaiak arauok aplikatzean sor daitezkeen zalantza guztiak argituko ditu eta neurri egokiak hartuko ditu probetarako beharrezko egokitzapenak egin ahal izateko.

5.3. Epaimahaiak, eratu ondoren, kide gehienen presentzia beharko du, titular zein ordezko, modu baliagarrian jarduteko. Kide horien artean, lehendakaria eta idazkaria, edo haien ordezkoak, egongo dira.

Hautaketa prozeduran oposizio aldiko ariketak egin eta baloratuko dira.

Prozesu osoa praktikaldi batekin osatuko da.

5.4. Oposizio aldiko lehenengo ariketa egiteko data, ordua eta lekua ALHAOn, udaleko iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratuko dira, onartutako eta baztertutako izangaien zerrendarekin batera.

5.5 Izangaiei behin baino ez zaie deituko ariketa bakoitza egiteko, behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak berak erabakiko dituen ezinbesteko kasuetan salbu.

Izangai bat deialdia egitean ariketara aurkezten ez bada, ariketa horretan parte hartzeko eskubidea galduko du. Arau berdina erabiliko da izangaiak nahitaezko ariketaren bat egitera aurkezten direnean, ariketa horiek hasita egonda. Borondatezko probak egitera berandu joaten badira edo ez badira aurkezten, proba horiei uko egin zaiela uste izango da.

Arriskuko haurdunaldia edo erditzea dela-eta izangairen batek ezin badu hautaketa-prozesua osatu edo ariketaren bat egin, haren egoera prozesua amaitu eta gerorotutako faseak gaintzearen baldintzapean geratuko da, eta fase horiek ezin izango dira atzeratu gainerako izangaiek prozesua arrazoizko denboren arabera ebazteko duten eskubidea urritzeko moduan. Epaimahaiak baloratu egin beharko du hori, eta, nolahi ere, hautaketa-prozesua egin baino lehen argitaratuko dira izangaiak.

Berdin jokatu da oposiziogile batek genero-indarkeriako gertakari bat pairatzen badu egun berean edo aurreko egunean. Hori justifikatzeko, dagokion salaketa aurkeztu beharko da auzialdi judizialean edo polizialean.

Epaimahai kalifikatzaileak ariketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dizkie ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun-maila duten izangaiei, baldin eta egokitzapena behar badute eta eskubidean hala eskatu badute, gainerako parte-hartzaileekiko aukera-berdintasuna izan dezaten, betiere probaren edukia indargabetzen ez badute eta eskatutako gaitasun-maila murrizten edo kaltetzen ez badute.

Interesdunek eskaera zehatza egin beharko dute eskabidean, hautaketa-prozesuan baldintza berdinetan sartzeko behar espezifikoak adierazita.

Eskatutako egokitzapenak ematea bidezkoa den baloratzeko, dagokion ziurtagiria edo informazio gehigarria eskatuko zaio hautagaiari. Egokitzapena ez da automatikoki emango, baizik eta desgaitasunak egin beharreko probarekin lotura zuzena duen kasuetan soilik.

Halaber, Epaimahaiak txosten bat eskatu ahal izango du, eta, hala badagokio, lan eta osasun-administrazioko edo organo eskudunetako organo teknikoen laguntza, egoki diren egokitzapenak zehazteko.

Epaimahai kalifikatzaileak uneoro izangaiei eskatu ahalko die behar bezala identifika daitezzen; horretarako, oposizioko ariketa bakoitzean bertaraterakoan NANA edo, epaimahaiaren iritziz, nortasuna egiaztatzeko egokia den dokumenturen bat izan beharko dute aldean (pasa-portea, gidabaimena).

Prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak hautagaietarako bati deialdian eskatzen diren baldintzaren bat falta zaiola jakin badu, aurretiaz interesdunari entzunaldia eginda, baztertuta geratuko da, eta hautaketa prozesua deitu duen agintaritzari jakinaraziko zaio.

SEIGARRENA. HAUTAKETA PROZEDURA.

Oposizio aldia: 100 puntu.

Oposizio aldiak proba hauek izango ditu:

Oposizio aldiak bi (2) ariketa egingo dira, eta, hala dagokionean, euskara azterketa, denak nahitaezkoak eta baztertzaileak.

1. Lehenengo ariketa: Iraupena: 120 minutu. Galdera-sorta bat erantzun beharko da, gai-zerrendako edozein gairi buruzko lau erantzun alternatiborekin.

Zuzeneko puntuazioa honako formula honen emaitza izango da: puntuazioa asmatutako kopurua ken errore-kopuruaren herena. Ondorio horietarako, erantzun gabeko galderak ez dira akatstzat hartuko.

Ariketa nahitaezkoa eta baztertzailea izango da izangai guztientzat.

Ariketa horretan gehienez 50 puntu lortu ahal izango dira. Gainditzeko, gutxienez, 25 puntu lortu beharko dira.

2. Bigarren ariketa: Kasu praktiko bat edo batzuk izango dira, lanpostuko nahitaezko eginkizunetan izangaiek duten trebetasuna baloratzeko. Ariketa nahitaezkoa eta baztertzailea izango da izangai guztientzat.

Ariketa horretan gehienez 50 puntu lortu ahal izango dira. Gainditzeko, gutxienez, 25 puntu lortu beharko dira.

3. Hirugarren ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzailea, deialdiko lanpostuak euskarazko 2. hizkuntza eskakizuna, derrigortasun datarekin, duelako.

Euskarazko 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatu beharko da, epaimahaiak zehazten duen moduan, horretarako Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak emandako arauari jarraituta (Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/89 Legearen 99.1 artikulua).

Ez dute ariketa hori egin beharko HAEEK emandako 2. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiria dutenak, edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B-2 mailaren baliokide den ezagutza maila egiaztatzen duten titulu edo ziurtagiri ofizialak dituztenak. Hizkuntza eskakizuna euskara tituluen eta ziurtagirien erregistro bateratuan jasota dutenek ere ez dute ariketa egin beharko; horretarako, izangaia berariazko baimena eman beharko dio Barrundiako Udalari egoera hori erregistroan baieztatzeko.

Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuari jarraituz (euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzearena eta hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez euskara maila egiaztatetik salbuestearena) hizkuntza eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek, dagokion ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute.

Hirugarren ariketan, euskara azterketan, gai edo ez-gai jarriko da, deialdian jasotako plazak derrigorrezko 2. hizkuntza eskakizuna duen lanpostu bati loturik baitago.

ZAZPIGARRENA. GAINDITUTAKOEN ZERRENDA ETA EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.

Oposizio aldiko proba zuzendu ondoren, epaimahaiak dagozkion kalifikazioak argitaratuko ditu udal iragarki taulan eta web orrian.

Hamar egun balioduneko epea izango da azterketak berrikusteko eta, epe hori amaitzen denetik aurrera, beste hamar egun balioduneko epea erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak idatziz aurkeztuko dira, udalaren erregistro orokorrean, eta epaimahaiko lehendakariari zuzenduko zaizkio.

7.1. Proba baztertzailak gainditu dituzten hautagaien azken kalifikazioa oposizio fasean lortutako puntuak batuz aterako da. Puntuazio horrek ezarriko du ordena.

7.2 Ariketak kalifikatu ondoren, proposatutako izangaiaren izena jarriko du epaimahaiak iragarki taulan, azken puntuazioaren hurrenkeraren arabera ordenaturik.

7.3 Epaimahaiaren iritziz lanpostua betetzeko gutxieneko baldintzak betetzen dituen izangairik ez badago, lanpostua bete gabe utziko da.

7.4 Epaimahaiak ezin izango du, inola ere, deialdiko lanpostu kopurua baino izangai gehiago proposatu.

7.5 Epaimahaiak akta igorriko dio alkateari, izendapenerako proposamenarekin batera.

Azken kalifikazioaren berdinketa izanez gero, ordena ezartzeko honako irizpide hauek beteko dira, hurrenez hurren:

– Emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeak ehuneko 40 baino gutxiago diren kidego, eskala eta kategorietan, Barrundiako udalekoetan.

– Ariketa praktikoan puntuaziorik altuena lortzea.

– Hala ere berdinketarik hautsi ezean, zozketaz egingo da. Zozketara pertsona interesatuak joan ahal izango dira.

ZORTZIGARRENA. AGIRIAK AURKEZTEA.

Eskatzen diren agiriak:

8.1 Proposatutako izangaiak 20 lan-egun izango ditu bere izena argitaratzen den egunetik aurrera hautaketa prozesuan parte hartzeko behar diren betekizunak badituela egiaztatzen duten agiriak aurkezteko. Agiriak jatorrizkoak izango dira, honakoak hain zuzen ere:

– Jaiotza ziurtagiria, dagokion erregistro zibilak emana. Ziurtagiri horren ordez familia liburua erakutsi ahalko da.

– Lanpostuari dagozkion eginkizunak betetzea eragozten duen gaixotasunik, akats fisikorik ez psikikorik ez daukala egiaztatzen duen mediku agiria. Hala ere, 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena aplikatu ahalko da. Kasu horretan, minusbaliotasuna eta lanpostuaren berezko eginkizunak egiteko gaitasuna egiaztatzen duen agiri ofiziala aurkeztuko da, organo eskudunak emanda.

– Aitorpena, herri administrazioen bateko zerbitzutik diziplina espediente bidez baztertua ez dagoela, eta ezintasun eta bateraezintasun kausaren batean ez dagoela adierazten duena. Bateraezintasun horiek zein diren Herri Administrazioetako Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Herri Administrazioetako Langileen Bateraezintasunei buruzko apirilaren 30eko 598/85 Errege Dekretuan daude jasorik.

– 6/1989 Legearen 43. artikuluan eskatu diren eta deialdiko oinarri espezifikoetan zerrendatuta dauden tituluen kopia erkatua.

Atal honetan adierazitako epean, ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako izangaiak eskatzen diren agiriak aurkezten ez baditu, edo agiriak aztertuta gero eskatutako betekizunetako bat ez duela ikusten bada, ezin izango da izendatu eta izangai horren gaineko jarduketa guztiak bertan behera utziko dira, gezurra esateagatik bere gain izango duen erantzukizunaz gain. Kasu horretan, eskumena duen organoak beste bat izendatzeko proposamena egingo du, hain zuen hautaketa prozesua gainditu eta azken puntuazioaren arabera zerrendan lehenengo proposatutakoaren atzetik datorrena izendatzekoa.

8.2 Oinarri hauetan exijitutako baldintzak agiri bidez frogatu ondoren, proposatutako izangai deitutako lanposturako praktiketako funtzionario izendatuko da.

Praktikaaldiak hiru hilabete iraungo du.

Aipaturiko epea amaitu aurretik, bere nagusi hurrenak txosten bat egingo du probaldian dagoen langileari buruz. Bertan, ondokoak izango dira kontuan: lanerako gaitasuna, errendimendu profesionala, ardura eta eraginkortasuna, prestutasuna eta ekimena, eta lanaren inguruan azaldutako interesa. Lantaldean integratzeko erakutsi duen gaitasuna ere hartuko da kontuan.

Izangaiak, praktiketako denboraldia gainditzen badu, karrerako funtzionario izendatuko da. Bestela, galdu egingo ditu izendatua izateko eskubide guztiak, Alkate-Udalburuaren ebazpen arrazoituaren bidez.

Plaza lortu ez, eta hautaketa prozesutik eratorritako gaindituen zerrendak bitarteko funtzionarioak izendatzeko erabiliko dira, indarrean dagoen araudiak araututako kasuetan.

BEDERATZIGARRENA. GORABEHERAK.

Interesdunek aurka egin ahal izango diete deialdiari, oinarriari, eta deialditik nahiz epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio egintzei, sektore publikoko araubide juridikoen legeetan eta administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen legeetan ezarritako kasu eta moduetan.

HAMARGARRENA. LAN POLTSA ERABILTZEKO IRIZPIDEAK.

Prozesu honetatik eratorritako lan poltsak Barrundiako Udalean mantentze lanetarako peoia lanpostuen programako kontratuak, hutsik dauden lanpostuak edo ordezkapenak betetzeko erabiliko dira.

Hau izango da plazak esleitzeko prozedura:

Lehenengo eta behin, libre dagoen lehen izangaiari deituko zaio.

Dagokion hautagaiari bi dei-saio egingo zaizkio egunean zehar, eta gutxienez ordubete egingo da bi deien artean. Kasu horretan, bi dei-saiakeren ondoren ez bada lortu pertsonarekin komunikaziorik ezartzea, txanda igaro baino lehen, hautagaiari e-mail edo SMS bat bidaliko zaio, eta hurrengo egun balioduneko 12:00ak arte jar daiteke harremanetan Idazkaritza Nagusiarekin, eskaintza egin dadin.

Epe horretan Idazkaritza Nagusiarekin harremanetan jarri ez bada, beste ahalegin bat egingo da telefono mugikorraren bidez, eta berehala erantzun beharko zaio eskaintzari. Azken kontaktua hurrengo egun horrek emaitzarik ematen ez badu, poltsan dagoen pertsonari behin betiko baja emango zaio.

Hautagaiak lan-eskaintzaren berri duen unetik aurrera, hurrengo egun balioduneko 9:30ak arte izango du izendapena onartzen duen edo ez idatziz adierazteko.

Lan-poltsaren indarraldia 8 urtekoa izango da, gehienez ere.

Zerrendako egoerak eta aldaketak:

– Eskuragarria.

Prest egongo dira, eta, beraz, eskaintzak jasotzeko egoeran, jarraian deskribatutako egoeraren batean ez daudenak.

– Lokalizaezina.

Egoera horretan egongo dira eskaintza egiten saiatu diren hautagaiak, baina Barrundiako Udaleko Idazkaritza Nagusiarekin artikulua honen hasieran ezarritako epeetan harremanetan jarri ez direnak. Poltsan behin betiko baja emango zaie.

– Behin betiko baja.

Hautagaiak behin betiko bajaran geratuko dira:

Lanpostu bati uko egiteagatik.

Bete aurretik sinatutako kontratu edo izendapen bati borondatez uko egiteagatik, baldin eta Barrundiako Udaleko beste lanpostu batean berehala lanean hasten ez bada.

Hiru egun balioduneko epean aldi baterako bajaren arrazoi justifikatua egiaztatzen duten agiriak ez aurkezteagatik, edo egindako eskaintzari erantzun justifikaturik ez emateagatik.

Hautagaia aldi baterako baja-egoerara pasatzea eragin zuen arrazoia amaitu eta hamar egun balioduneko epean erabilgarri egoerara itzultzeko eskatzen den justifikazio-dokumentazioa ez eskatzeagatik eta aurkezteagatik.

Barrundiako Udalak zehapen larri edo oso larri baten bidez zehatua izateagatik.

Lanpostuari esleitutako eginkizun nagusiak eta zereginak ez betetzeagatik. Kasu horretan, idazkari nagusiak txosten arrazoitu bat aurkeztuko du, ondorio hori ekar dezaketen arrazoi objektiboak azalduz. Txosten hori hautagaiari helaraziko zaio, eta hark hamar egun balioduneko epea izango du alegazioak aurkezteko, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera. Izapidetze horren ondoren, Alkatezaren Dekretu bidez ebatziko da espedientea, eta bertan erabakiko da hautagaiak lan-poltsan dagoen aurretiko egoeran jarraituko duen ala, aitzitik, "Behin betiko baja" egoeran deklaratu den.

– Aldi baterako baja.

Hautagaiak aldi baterako baja-egoerara pasako dira (hau da, ez zaie deituko, baina poltsan sartuko dira) honako kasu hauetan:

Barrundiako Udalean karrerako izendapenaren edo lan-programadun finakoaren bidez zerbitzuak ematen ari da.

Parte-hartzaileek eskaintza bati uko egiten diotenean, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik. Arrazoitutako zioak honako hauek dira:

Aldi bateko ezintasun-egoeran egotea.

Haurdunaldian, erditzean eta edoskitzaroan egotea, bai eta adopzioagatik edo familia-harreragatik lizentzia-egoeran ere.

Izangaia ezkontza egin eta hurrengo egun naturalen barruan dagoenean, indarreko legerian aurreikusten den moduan, edo kontratazioa epe horretan hasten denean. Tratamendu bera egingo da izatezko bikoteen kasuan.

Aldi baterako baja-egoera eragin zuten arrazoiak amaitu ondoren, hautagaiak idatziz jakinarazi beharko dio hori Idazkaritza Nagusiari, eta beharrezko egiaztagiriak aurkeztu beharko dizkio hamar egun balioduneko epean, alegatutako justifikazio-egoera amaitzen denetik zenbatzen hasita. Bestela, poltsan behin betiko baja emango zaio.

Lan-poltsak beren langile publikoak hautaketa-epaimahaian egotea baimentzen duten erakundeei bakarrik lagako zaizkie.

I ERANSKINA

Deialdi honen xede den lanpostuaren eginkizunak hauek dira, besteak beste:

Eraikin eta instalazioen zaintza.

Ordenantza, bando eta gainerako udal-xedapen eta egintzei buruzko kontrola, bere eskumen-eremuaren barruan, eta ingurumenaren eta ingurunearen babesaren arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela zaintzea, gai horiei buruzko toki-eskumenen esparruan.

Istripu, hondamendi edo zorigaitz publikoetan laguntza ematea, eta, legeetan aurreikusitako moduan, babes zibileko planak gauzatzen parte hartzea.

Udal-komunikazioak banatzea, iragarki-taulak mantentzea eta Udalak agindutako kartel eta dokumentu guztiak jartzea.

Udalerrian egiten diren eta agintzen zaizkion jai-, kultura- eta kirol-ekitaldi guztietan laguntzea.

Jabari eta erabilera publikoko eta udal-jabetzako ondasun eta instalazioen kontrola.

Iduia jauregia, Haurreskola, Ekinbide eraikina, Kiroldegia, Venta del Patio 1. zenbakikoa eta erabilera anitzetarako eraikina mantentzea.

Bere ardurapeko eraikin eta instalazio guztiak irekitzea eta ixtea.

Eraikina eta instalazioa unean uneko erabilerarako prestatzea.

Instalazioak kontrolatzeko lanak:

Botikinaren egoera.

Eraikinaren eta instalazioaren egoera, oro har.

Eraikinek eta instalazioek ezarrita dituzten fitxa eta dokumentu guztiak betetzea.

Bere ardurapeko eraikin eta instalazioetan barne-araudia betetzen dela zaintzea.

Eraikin eta instalazioetarako sarbideak garbitzea.

Dagoen eraikina, instalazioak eta makineria egoera onean edukitzea, eta arduradunei berehala jakinaraztea konpondu ezin dutena.

Berokuntzako eta ur beroko sistemaren funtzionamendua ezagutzea eta haren programazioaz arduratzea.

Landareak mantentzea.

Eraikineria eta instalaziora joaten diren pertsona guztiei arreta eta informazioa ematea.

Zerbitzuaren parte diren ibilgailuak, erremintak eta makinak mantentzea, alokatuta edo emanda.

Alkate-udalburuaren ikuskaritzapean, udaleko kirol-instalazioen mantentze-lanak planifikatzea eta jarduera ezarritako epeen eta erabilgarri dauden baliabideen arabera banatzea. Programaren inplementazioaz arduratzea.

Programazioan eta erabilgarri dauden baliabideetan oinarrituta, materialen eta ekipamenduen kontratazioa proposatzea, atzerapenik egon ez dadin.

Beharrei erantzuteko prest edukitzea instalazioa eta kirol-azpiegiturak (argiteria, galdarak, dutxen termoak, segurtasun-tresnak).

Futbol-zelaiaren azpiegituraz arduratzea.

Hobekuntzak eta erreformak proposatzea.

Bere kategoriaren barruan Udalak agintzen dion edozein lan.

GAI ZERRENDA (22)

1. Gaia. 1978ko Espainiako konstituzioa. Egitura eta edukia. Estatuaren lurralde-antolaketa Konstituzioan.

2. Gaia. 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa (1. artikulutik 30.era).

3. Gaia. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena (11. artikulutik 30.era).

4. Gaia. 11/1995 Foru Araua, martxoaren 20koa, Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzkoa (6. 18. artikulua).

5. Gaia. Administrazio-egintza. Administrazio-egintzaren kontzeptua, motak eta elementuak. Arrazoiak eta jakinarazpena.

6. Gaia. Administrazio-prozedura. Herritarrek administrazio-prozeduran dituzten eskubideak. Administrazio-prozeduraren printzipioak eta faseak: hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera.

7. Gaia. Administrazio publikoetako langileak: tipologia. Herri-administrazioetako langileen eskubideak eta betebeharrak. Bateriaezintasunak. Diziiplina-araubidea.

8. Gaia. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko Legea. III. Kapitulua Betebeharretarako eskubideak (14-29 artikulua).

9. Gaia. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. Zioen azalpena. Atariko titulua. I. tituluko I. kapitulua.

10. Gaia. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa (1. artikulutik 18. artikulura).

11. Gaia. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa (204. 218. artikulua).

12. Gaia. 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babestekoa (101. artikulutik 112. artikulura).

13. Gaia. 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa (1. 25. artikulua).

14. Gaia. 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa (1. 11. artikulua).

15. Gaia. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa (8. 15. artikulua).

16. Gaia. 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena (1. artikulutik 10. artikulura).

17. Gaia. Segurtasuna eta osasuna mantentze lanetan. Makinak eta materialak erabiltzeko neurri bereziak. Babes neurriak. Norbera babesteko ekipamenduak. Aldamioak eta eraispenak. Eraikuntzako materialak eta lanabesak.

18. Gaia. Igeltserotza obrak: hormak, eraikinen barrualdeko zatiketak, junturak, blokeko itxiturak, estaldura jarraituak, zarpiatuak, emokadurak, lohizatzeak, pinturak.

19. Gaia. Elektrizitatea: oinarriko kontzeptuak. Energia elektrikoaren garraioa, eroaleak eta isolagailuak. Lanabesak, matxurak eta konponketak. Argiteria publikoaren instalazioak.

20. Gaia. Arotz lanak: lanabesak, zurgintzako oinarriko teknikak eta mantentze lan eta konponketa ohikoenak. Apalategiak.

21. Gaia. Eraikin eta lokaletako pinturari buruzko kontzeptu orokorrak. Pinturak emateko eta kentzeko lanabesak: garbiketa eta kontserbazioa. Akats eta konponketa ohikoenak.

22. Gaia. Lorezaintza: kontzeptu orokorrak eta lorezainaren eginkizunak. Landareak. Lorezaintza lanetarako lanabes erabilgarriak. Landareak zaintzeko teknika nagusiak. Landareen gaixotasunak.